

Glifosatoarekin gezurra ari du



Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

Negozioaren nekazaritzak irabazi du. Salerosketaren uza gailendu da Europan, eta etekinari, soilik etekinari begira lanean ari direnek ziria sartu digute. Beste bost urtean glifosato hiltzailea jan beharko dugu. Glifosatoa hiltzailea da, bai; izan ere, belarrak hiltzeko asmoarekin erabiltzen da, baina belarrak hiltzen dituenak zer ez ote du hilko?

Mundu osoan nekazaritzaren alorra gero eta garrantzitsuago bihurtzen ari da. Etorkizuna eraikitzeko estrategikoa da. Aurrerantzean, gerrak ez dira irabaziko diruarekin, armekin edo ejertzi-toekin, gosearekin irabaziko dira. Dirua pilatzen duten multinazionalak lurra eskuratzen, ura pribatizatzen, hazien erabilera patentatzen, transgeniko kutsatzaileak hedatzen, ongari sintetikoak eta pestizida hiltzaileak behar dituzten landare aldaerak sustatzen eta abar ari dira. Bidea argia da: berdin da lurra hiltzea, berdin da ingurumena kutsatzea, berdin da bioaniztasuna agortzea, berdin da gero eta jendarte gaixoa goa izatea; guk patrikak beteta ditugu, gero eta beteago, gainezka.

Garai batean nekazaritza industrial deitzen genion, aspaldi aldatu genion izena; orain nekazaritza kapitalista da. Nekazaritza horrek ez du elikagairik ekoizten; dirua ekoizten du. Mozkina ez da ogia, mozkina sosa da, dirua. Eta diru-goseak mugitzen du Europa.

“Iraultza berdea” saldu ziguten duela mende erdi bat baino gehiago, nekazaritza industrialak bere kimika eta pozoi guztiekin munduko gosea berdinduko zuela. Emaizta gose den mundu erdiaren eta gaixo den beste erdiaren ahotan dabil: klima aldatzen, lurra antzutzen, pobrezia areagotzen, planeta erretzen...

Glifosatoa da guda hori ondoena isaltzen duena. Sekulako herbizida indartsua da, nekazariaren lana arintzen du, eta hura erabiltzea eskatzen dute; or-



AQUA MECHANICAL

Nekazaritzan eta lorategietan “belar txar” direlakoak hiltzeko ez ezik, beste gauza batzuetarako ere erabiltzen da glifosatoa. Esaterako, trenbide ertzetan hazten den belarra akabatzeko. Urdaibaiko Biosferaren Erreserban egindako argazki honetan (eskuman) argi bereizten da glifosatoz blaitutako bazterra.



dainetan, gu denon etorkizuna kixkaltzen ari gara. Nekazari horiek badakite hiltzailea dela, bere ondorengoen lurra eta etorkizuna erretzen ari direla. Administrazioako enpresetako teknikariek okerragoa da: urrutiko bulegoetan erabakitzen dute trenbideetan –argazkian bezala–, errepideetan, espaloietan nahiz plazetan glifosatoa erabiltzea. Eta zientzialariak, zurtasunaren zurtitzaileak.

2015ean eman zuen Osasunaren Mundu Erakundeak epaia, Minbiziaren

Ikerketarako Nazioarteko Agentziaren bitartez: seguruenera, minbizi-eragilea da glifosatoa. Ikaragarritzko mugimendua sortu zen haren erabilera galarazteko; milioi bat sinadura baino gehiago bildu ziren. Alferrik. Europa diruzaleak irabazi du.

Ez etsi, hala ere. Gure esku dago: ekologikoa jan. Eta Europara begiratzeari utzi, eta aldamenen dugun zinegotzi, alkate, diputatu, teknikari, nekazari eta abarri kalakan hasi: bizi behar dugu, glifosatorik ez! ■